

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure zerbitzuan bazkide nagusiak lau gara. Hain zuzen, Aitana Robles, Oihane Maritxalar, Elorri Ibarguen eta Markel Vargas. Gu, dena administratzeaz, kudeatzeaz eta sukaldatzen erakustiaz arduratuko gara.

Beste batzuen laguntzaz ere baliatuko gara prozesu guztia ahalik eta hoberena izateko, bestelako aliantzak egingo ditugu horretarako.

Hasteko, Arraztalo izango da gure hornitzaile bat. Hau Oiartzunen kokatzen den baratza bat da. Bertako bazkideek astero saski bat jasotzen dute baratzetik hartutako produktuekin. Horrela bezeroek kalitatezko produktu osasuntsuak eta bertakoak kontsumitzen dituzte. Gure zerbitzuak, Arraztalorekin aliantza izatea, onuragarria izango da. Izan ere, sukaldatzeko klaseak aurrera eraman ahal izateko produktuak behar ditugun horretan, eta guk eskaini nahi dugun hori osasuntsua, bertakoa eta ekologikoa izan dadin, beharrezkoa dugu balore horiek defendatzen dituzten hornitzaile bat izatea, hori da Arraztalo.

Beste aliatu esanguratsuenetako bat Labore dugu, Oarsoaldeko kontsumitzaileen kooperatiba bat (Pasaia, Errenteria, Oiartzun eta Lezo Gipuzkoako udalerriak biltzen dituen eskualdean kokatutakoa). Bertan, batez ere, hurbileko elikagaiak eta elikagai ekologikoak eros daitezke bidezkoak diren prezioan, eta, aldi berean, tokiko ekoizpena eta ekonomia babesten dute, bai eta kontsumo-eredu arduratsuago bat ere. Hortaz, gure proiektuaren bitartez lortu nahi den kontsumo eredugarria eta gertukoa eskuratzeko Laborek eskaintzen dizkigun produktu eta zerbitzuak oso baliagarriak ditugu. Horretaz gain, guk bultzatu nahi ditugun baloreekin bat egiten duen kooperatiba denez, gure helburua betetzeko hobeia izan daiteke.

Gainera, Errenkoalde Elkarteko dendekin (harategiekin, arrandegiekin...) ere lan egingo genuke, erabilitako produktu edo osagaien zati bat bertako postuetatik erosiko genukeelako. Errenkoalde Elkartea, Errenteriako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresen talde bat da, eta bertako kideen interesak babesteko eta, batez ere, sektore hau sustatzeko egiten du lana. Hortaz, Elizetxea harategiko haragia edo Maixabel arrandegiko arraina erosiko genuke, esaterako. Honek, bertako denda txikiak sustatzeko aukera emango du.

Hori gutxi balitz bezala, Basque Culinary Center erakundearekin akordio bat osatuko dugu behin enpresa ezarria dugunean, bertako ikasleek gure enpresan praktikak egin ditzaten. Praktikak egiten dituzten sukaldari berriek sukaldaritza klaseak emango dituzte eta beraiek ere azaltzeko eta irakasteko gaitasunak eskuratuko dituzte. Guretzat oso garrantzitsua da aliantza hau, azken batean, beraiek eta gu izango garelako gure zerbitzuaren oinarri edo muina beteko dugunak, hau da, sukaldatzen erakutsiko dugunak.